

**EUSKALTEL SA-REN
BALORE-
MERKATUETAKO
JOKABIDEARI
BURUZKO BARNE-
ARAUDIA**

1. XEDEA

Balore Merkatuetan izan beharreko jokoerari buruzko barne-araudi hau (aurrerantzean, “**Araudia**”) Euskaltel SAko (aurrerantzean “**Sozietatea**”) Administrazio Kontseiluak onartu du 2015eko [•]ren [•](e)an, Balore Merkatuari buruzko uztailearen 28ko 24/1988 Legearen (aurrerantzean, “**BML**”) 80.2 artikulua ezarritako mandatuari jarraikiz.

Araudi honen helburua da arautzea Sozietateak, haren administrazio-organoei, langileek eta ordezkariak balore-merkatuetan jarraitu beharreko jokabidea, BML garatzen duen azaroaren 11ko 1333/2005 Errege Dekretuak (aurrerantzean, “**1333/2005 ED**”) merkatu-abusuei buruz ezarritakoari jarraikiz.

2. DEFINIZIOAK

Araudi honetan aplikagarriak izango diren definizioak hauek dira:

- **Goi-zuzendariak:**

Zuzenean Sozietateko Administrazio Kontseiluaren edo, halakorik egongo balitz, Sozietateko lehen exekutiboaren (Lehendakari Exekutiboa, Kontseilari Ordezkaria edo Zuzendari Nagusia, kontseilaria izan edo ez izan) mende dauden goi-kargudunak, eta Sozietateko barneko kontu-ikuskapenaren arduraduna.

- **Kanpo-aholkulariak:**

Euskaltel Taldeko langileak izan gabe, Sozietateari edo Sozietatearen mendeko beste edozein sozietateri aholkularitza edo antzeko zerbitzuren bat eskaintzeagatik Sozietate horren informazio pribilegiatura edo garrantzitsura sarbidea duten pertsona fisiko eta juridikoak, eta pertsona juridikoen kasuan euren zuzendariak eta langileak.

- **Araudia betearaztearen arduraduna:**

Araudi hau betearazteaz arduratzen den pertsona edo pertsonak.

- **Egun baliadunak:**

Asteleheneetik ostiralerako egunak, Bilboko jaiegunak salbu.

- **Isilpeko dokumentazioa:**

Informazio pribilegiatu edo nabarmenaren euskarri materialak. Idatzizkoak, informatikoak edo bestelakoak izan daitezke, eta erabat isilpekoak izan behar dute.

- **Euskaltel Taldea:**

Sozietatea, eta Sozietate horrekiko Merkataritza Kodearen 42. artikulua aurreikusitako egoeran dauden filialak eta partaidetuak.

- **Gertaera garrantzitsua:**

Balore jaulkitzaileek merkatuari berehala jakinarazi beharreko informazio garrantzitsuen komunikazioa. Informazio hori Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari (“BMBN”) helarazi behar zaio, BMLren 82.2 artikuluari jarraikiz.

- **Informazio pribilegiatua:**

BMLren 81.1 artikuluari jarraikiz, informazio pribilegiatutzat hartuko da Sozietateak igorritako balio negoziagarri eta finantza-tresnei buruzko zuzeneko edo zeharkako informazio zehatza, oraindik publiko egin ez dena, eta publiko egin bada edo egingo balitz nabarmen eragin dezakeena edo nabarmen eragin lezakeena balio negoziagarri eta finantza-tresna horiek kontrataziorako merkatu edo sistema antolatu batean edo haietatik eratorritako finantza-tresnen sistema antolatu batean izango luketen kotizazioan .

1333/2005 EDaren 1.1 artikulua araberan, informazioa zehatza dela joko da uneko baldintza edo gertaerei buruzko informazioa edo etorkizunean segur aski izango diren baldintzei edo gertaerei buruzko informazioa adierazten duenean, baldin eta informazio hori aski zehatza bada ondorioztatzeko baldintza eta gertaera horiek balore negoziagarrien edo finantza-tresnen prezioan edo haiekin zerikusia duten finantza-tresna eratorrien prezioan izango duten eragina.

Era berean, aipatutako 1.1 artikulua ezarritakoari jarraikiz, ulertuko da informazio batek kotizazioan nabarmen eragin dezakeela zentzuzko inbertitzaile batek informazio hori inbertsioak egiteko irizpidetzat erabiliko balu.

- **Informazio garrantzitsua:**

MBLren 82.1 artikuluari jarraikiz, informazio bat informazio garrantzitsutzat hartuko da haren ezagutzak inbertitzaile bati zentzuz eragin diezaiokenean balore edo finantza-tresnak erosteko edo eskualdatzeko orduan, eta ondorioz, eragin nabarmena izan dezakeenean tresna horiek bigarren mailako merkatu batean izango duten kotizazioan.

- **Iniziatuak:**

Eragiketa batean parte hartzen ari direlako edo eragiketa batean sartuta daudelako Euskaltel Taldearen informazio pribilegiatura aldi baterako sarbidea duten pertsonak, kanpo-aholkulariak barne. Iniziatutzat hartuko dira iniziatuen erregistro batean jasota dauden bitartean.

Iniziatuek iniziatu izateari utziko diote Erregistro hori sortzeko arrazoia izan zen informazio pribilegiatu hori merkatura zabaltzen denean, aplikatzekoa den araudiak exijitu dezakeen jakinarazpenaren bidez, eta Araua Betearaztearen Arduradunak, edo hura eskuordetzen duen eta eragiketaren arduradun egin den zuzendaritzak horrela jakinarazten dietenean (adibidez, informazio pribilegiatu horren sorburu izan zen eragiketa eten egin delako edo bertan behera utzi delako).

- **Baimendutako solaskideak:**

Araua Betearaztearen Arduradunak aplikatzekoa den araudiari jarraikiz izendatutako pertsonak, BMBNak informazio garrantzitsuaren hedapenarekin lotuta egindako galderei, egiaztapenei edo eskaerei erantzun ahal izateko.

- **Pertsona atxikiak:**

Hauek hartuko dira pertsona atxikitzat hartuko dira:

(i) Sozietatearen Administrazio Kontseiluko kideak, eta, kide ez badira, Administrazio Kontseiluko idazkaria eta idazkariordea.

(ii) Sozietateko goi-zuzendariak;

(iii) Sozietateko eta dagozkion sozietate partaidetuetako zuzendariak eta balore-merkatuen arloan jarduten duten langileak, edo Sozietatearekin eta dagozkion sozietate partaidetuekin lotutako informazio pribilegiatua edo garrantzitsua, zuzenean edo zeharka, eskura izan ohi duten langileak, eta, finantza-saileko eta inbertitzaileekin harremanetan jartzeko saileko kideak; eta

(iv) eta unean uneko egoeren arabera, araudia betearaztearen arduradunak hala erabakita, araudiaren ezarpen-eremuan sartuta dagoen beste edozein pertsona.

- **Erlazionatutako pertsonak:**

Pertsona atxikiei dagokienez, 1333/2005 Errege Dekretuaren 9. artikulua ezarritakoari jarraikiz, erlazionatutako pertsona izango dira:

(i) ezkontidea edo gisako afektibitate-harremana duen beste edozein pertsona;

(ii) haren kargu dauden seme-alabak;

- (iii) harekin bizi diren edo haren kargupean dauden senitartekoak, gutxienez eragiketa gauzatu baino urte bat (1) lehenagotik;
- (iv) Pertsona Lotuak edo aurreko ataletan aurreikusitako pertsonak zuzendutako edo kudeatutako edozer pertsona juridiko edo edozer negozio juridiko fiduziario; edo zuzenean edo zeharka pertsona atxikiaren kontrolpean dagoena; edo pertsona atxikiaren onurarako sortu dena; edo hein batean pertsona atxikiak dituen interes ekonomikoen parekoak dituen.
- (v) pertsona tartekatuak; pertsona hauek pertsona atxikiaren konturako eragiketak egiten dituzte.
- (vi) Unean indarrean dauden lege-xedapenek erlazionatutako pertsona gisa izendatutako beste edozein pertsona edo erakunde.

- **Iniziatuen Erregistroa:**

Sozietateak jaulkitako balore negoziagarri edo finantza-tresnen kotizazioan eragin nabarmena izan dezakeen edozein motatako eragiketa juridiko edo finantzario jasotzeko egin behar den erregistroa. Bertan jaso behar da iniziatuei buruzko informazioa, Araudi honen 4.2 artikulua aurreikusten duen modura.

- **Pertsona Atxikien Erregistroa:**

Pertsona atxikiei buruzko informazioa jasotzen duen Erregistroa, Araudi honen 3. artikulua aurreikusten duenari jarraikiz.

- **Balore negoziagarri eta finantza-tresnen erregistroa:**

Balore negoziagarri eta finantza-tresnei buruzko informazioa jasotzen duen erregistroa. Pertsona atxikiak izango dute balore negoziagarri eta finantza-tresna horien gaineko titulartasuna, edo, halakorik ezean, pertsona erlazionatuek, Araudi honen 6.2. artikuluari jarraikiz.

- **Balore negoziagarriak eta finantza-tresnak:**

Balore negoziagarri edo finantza-tresna gisa hartuko dira honako hauek:

- (i) Sozietateak igorritako errenta aldakorreko edo errenta finkoko balore mugikorrek, zeinak negoziatuko baitira balore horiek bigarren mailako merkatu ofizial batean edo araututako beste merkatu batzuetan, negoziazio-sistema aldeaniztunetan, edo antolatutako bigarren mailako beste merkatu batzuetan (aurrerantzean, “**bigarren mailako merkatu**” deituko direnak).
- (ii) Aurreko baloreak, bigarren mailako merkatuetan negoziatzen ez direnak barne, erosteko eskubidea ematen duten edozer motatako finantza-tresnak eta kontratuak.

- (iii) Sozietateak igorritako balore eta tresnak oinarritzat dituzten finantza-tresnak eta kontratuak, bigarren mailako merkatuetan negoziatu ez direnak barne.
- (iv) Araudi honen 4. artikuluko (“Informazio pribilegiatuaren tratamendua”) ondorioetarako soilik, beste sozietate edo erakundeek igorritako balore edo finantza-tresnak, haiei buruzko informazio pribilegiatua izanez gero.

3. APLIKAZIO-EREMU SUBJEKTIBOA

Jokabideari buruzko Araudi hau pertsona atxikiei aplikatuko zaie, eta, berariaz hala adierazten denean, iniziatuei.

Araua betearaztearen arduradunak Pertsona Atxikien Erregistro bat sortuko du eta etengabe eguneratua izango, eta alderdi hauek jasoko dira bertan:

- (i) Pertsona atxikien identitatea;
- (ii) pertsona horiek Pertsona Atxikien Erregistroan jasotzeko egon diren arrazoiak; eta
- (iii) Erregistro horren sorreraren eta eguneraketan datak.

Pertsona Atxikien Erregistroa berehala eguneratu beharko da kasu hauetan:

- (i) Pertsona bat Erregistroan jasota egoteko arrazoietan aldaketaren bat gertatu denean;
- (ii) Erregistroan pertsona berri bat sartu behar denean; eta
- (iii) Erregistroan jasotako pertsona atxikiren bati baja ematen zaionean; kasu horretan, idatzirik utziko da gertakari horren data.

Araudia betearaztearen arduradunak jakinarazi behar die pertsona atxikiei Erregistroan jasoak izan direla. Halaber, Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak aurreikusitako bestelako alderdien berri eman behar die. Bestalde, jakinarazi behar die Araudi honi lotuak gelditzen direla.

Pertsona atxikiek behar bezala sinatuta igorri behar diote atxikimendu-konpromisoaren adierazpena (Araudi honetan 2. Eranskin gisa gehitu da) araudia betearaztearen arduradunari, dokumentua jaso eta gehienez hamabost (15) egun baliouduneko epean.

4. INFORMAZIO PRIBILEGIATUAREN TRATAMENDUA

4.1., Jokabide-arauak

BMLren 81.2 artikuluari jarraikiz, edonolako informazio pribilegiatua duten pertsona atxikiek eta iniziatuek:

- (i) Ez dute inolako eragiketarik prestatuko edo egingo, ez zuzenean ez zeharka, ez beren kabuz ez besteren kontura, sozietatearen balore negoziagarri edo finantza-tresnekin.

Eragiketak egin ahal izango dituzte, baldin eta eragiketa bera informazio pribilegiatua bada, edo eragiketa horren helburua bada balore negoziagarri eta finantza-tresna horiek erosteko edo eskualdatzeko epe kanpoko obligazioa betetzea, obligazio hori pertsona atxikiak edo iniziatuak informazio pribilegiatua esku artean izan baino lehen gauzatutako akordio batean jasota dagoenean. Salbuetsita gelditzen dira, halaber, aplikatzekoa den araudiari jarraikiz egin diren eragiketak.

- (ii) Informazio pribilegiatu hori ez diote hirugarren bati helaraziko, ez bada beren lanak, lanbideak eta kargu edo funtzioak hala exijitzen duelako. Kasu horretan, Jokabide Araudi honek ezarritako baldintzei jarraikiz helaraziko zaio informazio hori hirugarrenari.
- (iii) Informazio pribilegiatu hori izateagatik, ez diote hirugarren bati gomendatuko sozietatearen balore negoziagarriak edo finantza-tresnak erosteko edo saltzeko.
- (iv) Aplikatzekoa den araudian eta Araudi honetan aurreikusitako xedapenak beteko dituzte oro har.

Horretaz gain, informazio pribilegiatu edo garrantzitsuren bat duten pertsona atxikiek eta iniziatuek betebeharrak hauek izango dituzte:

- (i) Informazio hori babestea, informazio hori jakinarazteko eta agintaritzea judizial eta administratiboarekin kolaboratzeko duten betekizunaren kalterik gabe, BML eta gainerako lege aplikagarriek aurreikusten duten legez; eta
- (ii) beharrezko neurriak hartzea informazio horren abusuzko erabilera edo erabilera desleiala eragozteko.

Pertsona atxikiek eta iniziatuek (kanpo-aholkulariak alde batera utzita) berehala helarazi beharko diote araua betearaztearen arduradunari informazio pribilegiatu edo garrantzitsu horren abusuzko erabilera edo erabilera desleialari buruzko edozer berri.

Pertsona atxikiek eta iniziatuek kontu handiz gordeko dute isilpeko dokumentazioa, eta dokumentazio horren isilpekotasunari eutsiko diote, hirugarren batek informazio hori jaso eta balore negoziagarri eta finantza-tresnen ohiko kotizazioan eragin ez dezan.

Kanpo-aholkularien kasuan, isilpeko dokumentaziora sarbidea izan dezaten, beharrezkoa da aurretik isilpekotasun-konpromiso bat sinatzea, beren lan-estatutuak sekretu profesionalera behartzen dituen izan ezik.

4.2 Eragiketen azterketa- edo negoziazio-faseak

BMLren 83 *bis* artikulua eta 1333/2005 EDaren 8.1 artikulua ezarritakoari jarraikiz, Sozietateak igorritako edozein motatako balore negoziagarri eta finantza-tresnen kotizazioan eragin lezakeen edozer eragiketa juridiko edo finantza-eragiketa aztertzean edo negoziatzean:

- (i) Informazio hori ezinbestean jaso behar duten pertsonen helaraziko zaie informazioa, erakundekoak edo erakundetik kanpokoak izan.
- (ii) Sozietateak igorritako edozein motatako balore negoziagarri eta finantza-tresnen kotizazioan nabarmen eragin lezakeen edozer eragiketa juridiko edo finantza-eragiketa bakoitzerako, Iniziatuen Erregistro bat sortuko du araua betearaztearen arduradunak, eta eguneratuta izango du. Erregistro horretan alderdi hauek jasoko dira:
 - Iniziatuen identitatea;
 - pertsona horiek Iniziatuen Erregistroan jasotzeko izan diren arrazoiak; eta
 - Erregistro horren sorreraren eta eguneraketaren data.

Iniziatuen Erregistroa berehala eguneratu beharko da kasu hauetan:

- pertsona bat Erregistroan jasota egoteko zeuden arrazoiak aldatu egin direnean;
- Erregistroan pertsona berri bat sartu behar denean; eta
- Erregistroan jasota zegoen iniziatu batek informazio pribilegiatura sarbidea izateari uzten dionean. Kasu horretan idatzita jasoko da gertaera horren data.

Iniziatuen Erregistroan sartutako datuak gutxienez bost (5) urtez gorde beharko dira Erregistroa sortu zen egunetik kontatzen hasita, edo azken eguneraketatik, eguneraketarik egon balitz.

Araua betearaztearen arduradunak honako hauen berri eman behar die iniziatuei: Erregistroan jasotako izan direla; Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak aurreikusitako bestelako alderdiak bete behar dituztela; Araudi hau bete behar dutela; informazioa pribilegiatua dela; behartuta daudela informazio hori isilpean gordetzera; debekatua dutela informazio hori erabiltzea; araudia betearaztearen arduradunak azaldu behar die, halaber, informazio horren erabilera desegokiak zer arau-hauste eta zigor dakartzan; eta jakinarazi behar die beren ohiko lana egitean edo ohiko kargua betetzean informazio pribilegiatu hori hirugarren pertsona bati helarazi baldin badiote obligazioa dutela araudia betearaztearen arduradunari esateko zein den hirugarren hori, hura ere Iniziatuen Erregistroan sar dezan.

- (iii) Beharrezkoak diren segurtasun-neurriak hartuko dira informazio pribilegiatu eta garrantzitsuaren zaintza, sarbidea, erreprodukzioa eta hedapena ziurtatzeko, Araudi honek jasotzen dituen neurri murriztaileei jarraikiz.
- (iv) Finantza-zuzendariak zainduko ditu Sozietateak jaulkitako balore negoziagarri eta finantza-tresnen merkatuko garapena, eta informazio ekonomikoaren hedatzaile profesionalek eta hedapen-bideek emandako informazioa, eragina izan dezakeenean.
- (iv) Kontratututako bolumenen edo negoziatutako prezioen ezohiko bilakaera gertatzen bada, eta zantzuak baldin badaude pentsarazten dutenak bilakaera hori informazio pribilegiatu eta garrantzitsuaren behar baino lehenagoko zabalkuntzak, zabalkuntza partzialak edo zabalkuntza desitxuratuak eragin duela, Finantza Zuzendariak, aurretiaz Kontseiluko Lehendakariarekin hitz eginda, behar diren neurriak hartuko ditu gertaera garrantzitsu bat berehala hedatzeko, zeinaren bidez argi eta garbi azalduko baita indarrean dagoen eragiketaren egoera zehatza, edo gerorago emango den informazioaren aurrerapena. Hala eta guztiz, aurreko pertsonak uste badute informazioa ez dela publiko egin behar Sozietatearen interes legitimoak arriskuan jartzen dituelako, horren berri berehala eman behar zaio BMBNri, erakunde horrek BMLren 90. artikulua aplikatzearen egokitasuna azter dezan.

5. INFORMAZIO GARRANTZITSUAREN TRATAMENDUA

5.1. Informazio garrantzitsuaren identifikazioa

Informazio batek izan dezakeen garrantzia ebaluatzeko, eta informazio hori informazio garrantzitsutzat jo daitekeen erabakitzeke, kontuan hartuko dira, besteak beste, irizpide hauek:

- (i) Sozietatearen jardueran gertaerak, erabakiak edo baldintzek izan duten magnitude erlatiboa.
- (ii) Balore negoziagarrien edo finantza-tresnen prezioan erabakigarriak diren faktoreei dagokienez, informazio horrek duen garrantzia.
- (iii) Balore negoziagarri edo finantza-tresnen kotizazio-baldintzak.
- (iv) Iraganean antzeko informazioren bat garrantzitsutzat jo izana, edo Sozietatearen sektore bereko edo merkatu bereko jaulkitzaileek informazio-mota hori garrantzitsutzat jo ohi izatea.
- (v) Iraganean antzeko informazioren batek prezioetan izan zuen eragina.

- (vi) Sozietateari buruzko kanpo-azterketek halako informazioari ematen dioten garrantzia.
- (vii) Balore edo finantza-tresnetan eragina izan dezakeen edozein motatako eragiketa juridikoren edo finantza-eragiketaren azterketa- eta negoziazio-fasean kontratatutako bolumenen edo negoziatutako prezioen ezohiko bilakaera gertatzea, eta zantzuak egotea pentsarazten dutenak eragiketaren behar baino lehenagoko zabalkuntzak, zabalkuntza partzialak edo zabalkuntza desitxuratuak eragin duela bilakaera hori.

Informazio garrantzitsua BMBNri jakinaraziko zaio, Araudi honen 5.3 artikuluari jarraikiz.

5.2. Baimendutako solaskideak:

Sozietateak baimendutako solaskide bat edo batzuk izendatuko ditu.

Araudia betearaztearen arduradunak baimendutako solaskide gisa izendatutako pertsonak edo pertsonak bete egin beharko dituzte kargu hori betetzeko legeak ezarritako baldintzak, eta izendapen horren berri emango zaio BMBNri, indarrean dagoen araudiari jarraikiz.

5.3. Informazio garrantzitsua argitaratzea

Baimendutako solaskideetako edozeinek berehala jakinarazi behar dizkio gertaera garrantzitsuak BMBNri. Informazioa beste edozein bidetatik zabaldu aurretik edo zabaldu bitartean egin behar da jakinarazpen hori, eta gertaera garrantzitsua ezagutu, erabakia hartu edo akordioa edo kontratua sinatu orduko.

Jakinarazpenaren edukiak egiazkoa, argia eta osoa izan behar du, nahasmendu edo iruzurrik eragin ez dezan. Informazio garrantzitsua modu neutroan azaldu behar da, haren irismena desitxuratzen edo aurretik juzgatzen duten isuri edo balio-judiziorik gabe, balore baten kotizazioan onera edo txarrera eragin gorabehera. Informazio garrantzitsuaren edukia, ahal den guztietan, kuantifikatu egin behar da, eta dagokion zenbatekoa adierazi behar da. Gutxi gorabeherako datuak direnean, zehaztu egingo da inguruabar hori, eta, ahal den guztietan, ustezko balio-tartea zenbatekoa den adieraziko da. Informazio garrantzitsuen jakinarazpenetan egokitzen jotzen diren aurrekariak, erreferentziak edo konparaketa-puntuak aipatuko dira, informazio hori ulergarriagoa eta irisgarriagoa izan dadin. Beste organo baten aurretiko baimenaren edo ondorengo onarpen edo berrespenaren arabera dauden erabakiak, akordioak eta proiektuak aipatzen baditu jakinarazi behar den informazio garrantzitsu horrek, egoera hori zehaztu egin behar da.

Sozietateak publiko egiten baditu kontabilitate-, finantza- eta eragiketa-magnitudeen proiektzio, aurreikuspen edo zenbatespenak, eta haien edukia informazio garrantzitsutzat jotzen bada, baldintza hauek errespetatu behar ditu:

(i) kontabilitate-magnitudeen zenbatespen edo proiektzioak, haien kalkulurako erabilitako hipotesi edo oinarritzko suposizioen mende daudenak, urteko kontuak formulatzeko ezarri diren kontabilitate-arauekin eta printzipioekin koherenteak izan behar dute, eta konparagarriak izan behar dute Sozietateak iraganean publikatutako informazio finantzarioarekin eta etorkizunean publikatuko duenarekin; (ii) informazioak erraz identifikatzeko modukoa izan behar du, eta berariaz adierazi behar da Sozietatearen zenbatespenak edo proiektzioak direla, eta, beraz, ezin dela bermatu etorkizunean beteko direla, arriskuen, ziurgabetasunen eta beste faktore batzuen mende baitaude, eta ondorioz, azken bilakaera eta emaitzak proiektzio, aurreikuspen eta zenbatespen horien edukietatik aldendu daitezkeela; eta (iii) argi bereizi ahal izan behar da jakinarazten den hori helburu operatiboak diren edo Sozietatearen bilakaerari buruzko zenbatespen edo aurreikuspen hutsak diren. Era berean, garbi adierazi behar da zenbatespen eta aurreikuspen horiek noizko proiektatu diren, eta zehaztu egin behar da zer hipotesi edo suposiziotan oinarritzen diren.

Gertaera garrantzitsuak Sozietatearen webgune korporatiboaren bidez eskuratu ahal izango dira BMBNri haien berri eman orduko.

Araudia betearaztearen arduradunak, edo hark horretarako izendatuko pertsonak edo pertsonak, ikuskatu egingo dute, aldiaren behin, Sozietatearen webgune korporatiboko edukiak betetzen duen aipatutako eskakizun hori, eta oro har, kotizatuta egotetik eratorritako eskakizun guztiak betetzen dituen.

Administrazio Kontseiluko lehendakariak edo baimendutako solaskideek baieztatu edo ezeztatu egingo dituzte, zer dagokion, gertaera garrantzitsutzat jo diren egoera horiei buruzko informazio publikoak.

Informazio garrantzitsua merkatura modu simetriko eta bidezkoan helarazten dela ziurtatzeko, pertsona atxikiak edo iniziatuek ezin izango diete helarazi analistei, akzionistei, inbertitzaileei edo prentsari gertaera garrantzitsutzat jotzen den informaziorik, informazio hori ez bada, aurretik, merkatu osora helarazi.

Jakinarazitako gertaera garrantzitsu bat zuzendu egin behar bada, jakinarazpen berri bat egingo da, eta argi eta garbi zehaztuko da zer den zuzendu beharreko jatorrizko komunikazioa, eta zer aldaketa egin diren.

6. PERTSONA ATXIKIEN ETA INIZIATUEN ERAGIKETAK BALORE NEGOZIAGARRI ETA FINANTZA-TRESNETAN

6.1. Aurretiko baimena

Pertsona atxikiak behartuta daude araudia betearaztearen arduradunari aurretiko baimena eskatzera Sozietatearen balore negoziagarri eta finantza-tresnen erosketak eragiketarako edo borondatezko eskualdatze-eragiketarako egiteko, beren kontura ari direnean eta besteen kontura ari direnean. Erlazionatutako pertsonak egindako eragiketarako norberaren kontura egindako eragiketen baliokide izango dira.

Araudia betearaztearen arduradunak pertsona atxikiaren eskaera jaso, eta gehienez hurrengo bost (5) egun baliodunetan esango du baimena ematen duen edo ukatzen duen. Baimena eman egin dela ulertuko da, bost (5) egun balioduneko epe hori igarota, araudia betearazteko arduradunak ez badu horri buruzko jakinarazpenik egin.

Aurretiko baimena jaso ondoren, pertsona atxikiak bost (5) egun balioduneko epea izango du balore negoziagarri eta finantza-tresnen gaineko eragiketa baimendu hori egiteko. Epe hori igarota, pertsona atxikia behartuta egongo da aurretiazko baimena berriz eskatzera araua betearaztearen arduradunari.

Araudia betearaztearen arduradunak balore negoziagarri eta finantza-tresnen gainean egin beharreko eragiketak baimentzeko eskumena Administrazio Kontseiluko lehendakariari dagokio, eta, kasu horretan, aurreko paragrafoetan aurreikusitako prozedura da aplikatzekoa, *mutatis mutandis*.

6.2. Ondorengo jakinarazpena

Pertsona atxikiak balore negoziagarri eta finantza-tresnen gainean eurek eta pertsona erlazionatuek egindako eragiketak jakinarazi egin behar dituzte Pertsona Atxikien Erregistroan sartu diren egunetik aurrera.

Jakinarazpenak informazio hau barne hartu behar du:

- (i) Pertsona atxikiaren izena, edo, hala dagokionean, pertsona erlazionatuarena.
- (ii) Jakinarazteko obligazioaren arrazoia.
- (iii) Balore negoziagarri edo finantza-tresnaren deskribapena.
- (iv) Eragiketaren izaera.
- (v) Eragiketa egin zen merkatuaren izena eta data.
- (vi) Eragiketaren prezioa eta bolumena.

Araudia betearaztearen arduradunak erregistro bat izango du pertsona atxikien eta pertsona erlazionatuen titulartasuna duten Sozietatearen balore negoziagarri eta finantza-tresnak jasotzen dituen. Gutxienez urtean behin, balore negoziagarri eta finantza-tresnen saldoa berresteko eskatuko die pertsona atxikiei.

6.3. Eragiketak gauzatzeko debeku-aldiak

Pertsona atxikiak ez dute Sozietatearen balore negoziagarri edo finantza-tresnarik erosi edo salduko jarduera mugatuko denbora-tarte hauetan:

- (i) Sozietateak dagokion seiheleko edo urteko finantza-txostena edo kudeaketaren bitarteko adierazpena BMBNri eta burtsak gidatzen dituzten sozietateei igorri aurreko hamabost (15) egunetan.
- (ii) bestelako informazio pribilegiatu edo garrantzitsura sarbidea dutenetik informazio hori zabaldu edo publiko egiten den arte.

Araudia betearaztearen arduradunak pertsona atxiki guztien edo batzuen balore negoziagarri eta finantza-tresnen gaineko eragiketak debekatu ahal izango ditu lehen aipatutako kasuez gain, berak erabakitako epean, uneko baldintzek hala justifikatzen badute.

6.4. Birsalmenta-debekua

Pertsona atxikiek ezingo dituzte saldu erosi dituzten balore negoziagarri eta finantza-tresnak haiek erosi eta hiru (3) hilabete igaro arte, araudia betearaztearen arduradunak, berariaz eta idatziz, horretarako baimena eman ezean. Salmenta hori egiteko asmoa araudia betearaztearen arduradunak baldin badu, Administrazio Kontseiluko lehendakariak izango du salmenta-eragiketa horiek baimentzeko eskumena.

6.5. Zorroen kudeaketa

Zorroen kudeaketari dagokionez, pertsona atxikiek halako inbertsio-zerbitzu bat emateko gaituta dauden erakundeekin egiten dituzten kontratuetan honako arau hauek aplikatuko dira:

- (i) **Zorroen kudeaketa diskrezionalerako kontratuen edukia:** Kontratu horiek inbertsio-erabakiak hartzeko ahalmena ematen badiote komitentearen izenean eta haren kontura, baina modu profesionalean eta independentean diharduen kudeatzaile bati, pertsona atxikiek ziurtatu egin behar dute kontratu horien klausulek baldintza hauetako batzuk jasotzen dituztela:
 - Kudeatzaileak balore negoziagarri eta finantza-tresnen gaineko eragiketak egiteko berariazko debekua.
 - Bermatu egin behar da, modu erabateko eta ezeztazinean, eragiketak pertsona atxikien esku-hartzerik gabe egingo direla, eta, beraz, erabakiak hartzeko orduan soilik kontuan hartuko direla kudeatzailearen irizpide profesionala eta antzeko finantza- eta inbertsio-profilak dituzten bezeroei ezartzen zaizkien jarraibideak.

Nolanahi ere, 6.1 eta 6.2 artikuluetan aurreikusitako erregimena ezingo zaie ezarri balore negoziagarri eta finantza-tresnen gaineko eragiketei zorroen kudeaketa diskrezionalerako kontratuen esparruan, pertsona atxikien berariazko adostasuna beharrezkoa denean izan ezik. Azken horri dagokio haietan ezarritako obligazioak betetzea.

- (ii) **Komunikazioa:** Zorroen kudeaketa diskrezionalerako kontratu bat sinatzen duten pertsona atxikiek haren kopia bat igorri beharko diete araudia betearaztearen arduradunari sinadura ondorengo bost (5) egun baldiodunen barruan. Araudia betearaztearen arduradunak arrazoiak baditu pentsatzeko kontratua ez datorrela bat aurreko atalean (i) ezarritakoarekin, pertsona atxikiari jakinarazi behar dio akordioan behar diren aldaketak egin daitezen. Egokitzapen hori egin arte, pertsona atxikiek kudeatzaileari aginduko diote inolako eragiketarik ez egiteko balore negoziagarri eta finantza-tresnen gainean.
- (iii) **Kudeatzailea informatzea:** Pertsona atxikiak ziurtatu behar du bere balore-zorroen kudeatzaileak ezagutzen dituela pertsona atxikiak jarraitu beharreko jokabide-arauak, eta, beraz, kudeatzaileak arau horien arabera jardun behar duela. Pertsona atxikiaren ardura izango da aipatutako kontratu hori ebaztearen egokitasuna baloratzea, kudeatzaileak Araudi honetan ezarritakoa ez badu bete.
- (iv) **Aurreko kontratuak:** Erregelamendu hau indarrean sartu aurretik pertsona atxikiek sinatutako kontratuak hemen xedatutakoari egokitu beharko zaizkio, eta, bitarte horretan, balore negoziagarri eta finantza-tresnen gaineko eragiketak egitearen debekuari buruzko aurreko 6.1 eta 6.2 artikulua aurreikusitakoa aplikatuko da.

7. SOZIETATEAREN BALORE NEGOZIAGARRI ETA FINANTZA-TRESNEN KOTIZAZIOA MANIPULATZEKO DEBEKUA

BMLren 83 ter artikuluar eta 1333/2005 EDaren 2.1 artikuluar jarraikiz, pertsona atxikiek eta iniziatuek ez dute Sozietatearen balore negoziagarri eta finantza-tresnen prezio-eraketa faltsutzeko asmoz honelako ekintzarik egingo edo prestatuko:

- (i) Sozietatearen balore negoziagarri edo finantza-tresnen eskaintzari, eskariari edo prezioari buruzko zantzu faltsu edo engainagarriak sor ditzaketen aginduak ematea edo eragiketak egitea.
- (ii) Pertsona baten bidez, edo itunduta jarduten duten hainbat pertsonaren bidez, Sozietatearen balore negoziagarri eta finantza-tresna baten edo batzuen prezioari maila ezohikoan edo artifizialean eusteko aginduak igortzea edo eragiketak egitea, eragiketak egin edo aginduak igorri dituen pertsonak ez badu egiaztatzen bere arrazoiak zilegiak direla, eta arrazoi horiek dagokion merkatu arautuan onartutako praktiken arabera direla; eta pertsona batek, edo hitzartuta jarduten duten hainbat pertsonak balore negoziagarri edo finantza-tresna baten eskaintza eta eskariarekiko posizio gailena ziurtatzeko, zuzenean edo zeharka, erosketa- edo salmenta-prezioak eta negoziatorako bidegabeak diren beste baldintza batzuk finkatzea.

- (iii) Gezurrezko dispositiboak edo edonolako dispositibo iruzur-eragileak dituzten aginduak igortzea edo eragiketak egitea; edo balore negoziagarri edo finantza-tresna bat merkatua ixteko unean saltzea edo erostea, erabakiak une horretako kotizazioetan oinarriturik hartzen dituzten inbertitzaileak engainatzeko.
- (iv) Komunikabideen bidez, Internet barne, edo beste edozein bide erabilia, Sozietatearen balore negoziagarri eta finantza-tresnei buruzko zantzu faltsu edo engainagarriak dituen informazioa zabaltzea, eta zurrumurru edo berri faltsu eta engainagarriak hedatzea, nahiz eta berri hori hedatu duen pertsona jakinaren gainean egon berri hori faltsua edo engainagarria zela.
- (v) Ohiko komunikabideetara edo komunikabide elektronikoetara noizean behingo edo aldizkako sarbidea aprobetxatuz, balore negoziagarri edo finantza-tresna bati buruzko iritzia adieraztea, edo, zeharka, jaulkitzaileari buruzko iritzia ematea, balore edo finantza-tresna horren gaineko posizioa hartu eta balore edo finantza-tresna horren prezioari buruz emandako iritziaren eraginaz etekina atera ondoren, iritzi publikoari interes-gatazka horren berri era egokian eman gabe.

Ez dira artikulu honetan sartuko eragiketa edo agindu hauek:

- (i) Sozietateak bere akzioen berrerosketa-programak gauzatzeko egiten dituenak, legeak horretarako ezarritako baldintzak betetzen direnean, betiere; eta
- (ii) oro har, ezarritako araudiari jarraikiz egiten direnak.

8. AUTOZORRO ERAGIKETAK

- (i) Araudi honen ondorioetarako, autozorro-eragiketatzat joko dira Sozietateak edo Euskaltel Taldearen sozietateek egindakoak, eragiketa horien xedea Sozietatearen akzioak badira. Autozorro-eragiketatzat joko dira, halaber, burtsan edo bigarren mailako beste merkatu arautuetan negoziatutako edo negoziatu gabeko finantza-tresnak edo edozer motako kontratuak, Sozietatearen akzioen mende badaude, edo Sozietatearen akzioak erosteko eskubidea ematen badute.
- (ii) Autozorro-eragiketek bidezko helburuak izango dituzte beti: besteak beste, Sozietatearen akzioen negoziazioan inbertitzaileek likidezia eta sakontasun egokia izatea; akzio propioak erosteko Administrazio Kontseiluak edo Akziodunen Batzar Nagusiak onartutako programak gauzatzea; aurretik adostutako konpromiso legitimoak betetzea, edo aplikatzekoa den araudiari jarraikiz, onargarriak diren beste helburu batzuk erdietsi nahi izatea. Autozorro-eragiketen helburua ez da inoiz izan behar prezioen eraketa askean eragitea. Bereziki, ekiditekoak dira BMLren 83 ter 1 artikulua, 1333/2005 EDaren 2. artikulua eta Erregelamendu honen 7. artikulua aipatzen dituzten jokabideak.

- (iii) Euskaltel Taldearen autozorro-eragiketak ez dira inoiz egingo informazio pribilegiatuaz baliatuta.
- (iv) Autozorroaren kudeaketari dagokionez, harreman erabat gardena edukiko da ikuskariekin eta merkatuak gidatzen dituzten erakundeekin.
- (v) Autozorroari dagokionez, funtzio hauek izango ditu Finantza Zuzendaritzak:
- Autozorroa kudeatzea artikuluan ezarritakoari eta aplikatu beharreko araudiari jarraikiz, hargatik eragotzi gabe Sozietatearen autozorroa independenteki kudeatzeko asmoz finantza-erakundearekin likidezia-kontratu bat sinatzeko aukera, kontratu horiek merkatuan onartutako praktika gisa erregulatzen dituen araudiaren arabera jardunez.
 - Sozietatearen akzioek merkatuetan duten bilakaera zaintzea, eta haien kotizazioan inolako aldaketarik gertatzen bada araudia betearaztearen arduradunari jakinaraztea.
 - Onartutako eta egindako autozorro-eragiketa guztien arxibo bat edukitzea.
 - Egindako autozorro-eragiketen berri ematea, aldiaren behin, araudia betearaztearen arduradunari, eta hark, hala dagokionean, BMBN eragiketa horiei buruz informatzea.
- (vi) Finantza Zuzendaritzako langileek isilpekotasun-konpromiso berezi bat hartuko dute euren gain, autozorro-eragiketei dagokienez.
- (vii) Araudia betearaztearen arduradunak artikuluan honekin lotutako betebeharrak egingo ditu, eta Administrazio Kontseiluari autozorro-eragiketen berri emango dio, aldiro.
- (viii) Autozorro-eragiketa egiten den sistemetan eta merkatuetan kontratatzen diren akzio propioen eguneko bolumenak, salmentak eta erosketak barne hartuta, ez du gaudituko akzioak negoziatzea onartu duen bigarren mailako merkatu ofizialaren agindu-merkatuen aurretiazko hogeita hamar saioretako erosketa-kontratazioen eguneko batezbestekoaren ehuneko hamabost (% 15). Atalase hori ehuneko hogeita bostekoa (% 25) izango da, erositako akzio propioak beste sozietate bat erosteko ordain gisa erabili behar badira, edo, fusio-prozesu baten harira, trukean ematen badira.
- (ix) Prezioak jartzerakoan ez da oztopatu behar prezioen eraketa askea. Horretarako, erabilitako merkatuko kideari argibideak emango zaizkio irizpide horri jarraikiz jardun dezan. Erosketa-aginduen prezioak ez du gaudituko behar subjektu independenteek merkatuan egindako azken salerosketaren preziorik handiena, eta agindu-agiriko erosketa-agindu batean jasotako prezio handiena. Aitzitik, salmenta-aginduen prezioak gaudituko egin behar du subjektu independenteek merkatuan egindako azken salerosketaren preziorik baxuena, eta agindu-agiriko erosketa agindu batean jasotako preziorik baxuena. Bestalde, erosketa- eta salmenta-prezioak ez dute eraginik izan behar balorearen prezioan.

- (x) Ez da erosketa- edo salmenta-agindurik sartuko irekiera- edo itxiera-enkanteak irauten duten bitartean. Arau horrek salbuespen hauek ditu:
 - (a) Aldi horietan egindako eragiketa salbuespenezkoa izatea, arrazoituta egotea, eta kontuz handiz aritzea, agindu horiek enkante-prezioaren bilakaeran nabarmen eragin ez dezaten. Nolanahi ere, sartutako aginduen bolumenak, erosketenak eta salmentenak barne, ez du gainditu behar agindu horiek sartu ziren unean enkantean lortutako bolumen teorikoaren ehuneko hamar (% 10). Bestela, eta ezohiko eta arrazoitutako gertaerarik ezean, ez da merkatu-agindurik sartu behar aldi horietan; edo
 - (b) jaulkitzaileak jaulkitako akzioak *fixing* modalitatean kontratatzen direnean. Kasu horretan enkantearen ebazpena baino lehenago sartu beharko dira aginduak, merkatuko gainerako parte-hartzaileek sartutako aginduen aurrean erreakzionatzeko tarte izan dezaten. Gainera, eta ezohiko eta arrazoitutako gertaerarik ezean, ez da merkatu agindurik sartu behar aldi horietan;
- (xi) Ez da autozorro-eragiketarik egingo, BMLren 82.4 artikuluari jarraikiz, eta norbere ardurapean, informazio garrantzitsua beranduago argitaratzea eta zabaltzea erabakitzen denetik informazio hori zabaltzen den arte.
- (xii) Akzioen negoziazioa etenda badago, jaulkitzaileak edo jaulkitzailearen kontura jarduten duen bitartekariak ez du agindurik sartuko etenaldi hori kendu aurretiko enkante-aldian, eragiketak balorean gurutzatu diren arte. Egikaritu gabeko aginduak baleude, horiek kendu egin beharko lirатеke.
- (xiii) Nolanahi ere, Sozietateak ezingo du autozorro-eragiketarik egikaritu emaitzak publiko egiteko ezarri den egutegiaren aurreko hamabost (15) eguneko epean.
- (xiv) Ahaleginak egingo dira autozorroaren kudeaketak eraginik ez izateko konpainiaren gainerako jardueretan.
- (xv) Beste sozietate baten erosketari edo beste sozietate batekin egindako fusioari buruzko gertaera garrantzitsua BMBNri jakinarazten zaionean, eta eragiketa hori akzio propioak erosiz erabat edo zatika instrumentatu behar denean, irizpide hauei jarraituko zaie:

- (a) Norberaren akzioak erosten hasi aurretik, publiko egingo da, BMBNri dagokion informazio garrantzitsua helaraziz, erosketen xedea, erosi beharreko akzio propioen kopurua eta erosketak horiek egiteko epea.
 - (b) BMBNri dagokion gertaera garrantzitsua helaraziz, autozorroarekin egindako eragiketen xehetasunak publiko egingo dira, gehienera jota eragiketaren biharamuneko eguneroko merkatuaren zazpigarren sesioaren amaieran.
 - (c) Akzio propioen erosketa arrazoitzen duen beste sozietate baten erosketa edo beste sozietate batekiko fusioa ez badira gauzatzen, publiko egingo da gertaera hori, BMBNri dagokion gertaera garrantzitsua helaraziz, eta azaldu egin beharko da zer egingo den erositako akzio propio horiekin.
- (xvi) Euskaltel Taldeak autozorro-eragiketetan kontuan izango ditu, artikulua honetako aurreikuspenez gain, uneoro aplikagarria den arauditik eratorritako obligazio eta betebeharrak.

9. INTERES GATAZKAK

9.1. Gatazka-suposizioak

Interes-gatazkak daudela onartuko da pertsona atxikiak honako baldintzak dituenean artikulua honek aipatutako erakundeekiko:

- (i) Administratzailea edo goi-zuzendaria denean.
- (ii) Partaidetza aipagarri baten jabe denean. Partaidetza aipagarritzat joko da, Espainiako edo atzerriko bigarren mailako edozein merkatu ofizialetan kotizatutako sozietateen kasuan, BMLren 53. artikulua eta hura garatzen duten legeek aipatzen dituztenak; Espainiako edo atzerriko sozietate kotizatu gabeen kasuan, berriz, aipagarritzat joko da jaulkitako kapitalaren ehuneko hogeiko (% 20) partaidetza.
- (ii) Administratzaileekin, partaidetza aipagarrien jabeekin edo goi-zuzendariekin, ezkontza-ahaidetasuna dela medio, bigarren gradura arteko familia-lotura duenean, edo, odolkidetasuna dela medio, hirugarren gradura arteko familia-lotura duenean.
- (iv) Zuzenean edo zeharka, garrantzizko kontratu-harremanak dituenean.

9.2. Jarduteko printzipio orokorrak

- (i) **Independentzia:** Pertsona atxikiek beti irizpide-askatasunez jardun behar dute, Sozietatearekin eta haren akziodunekin leialak izan behar dute, eta ez dute norberaren edo besteren interesen arabera jardun behar. Horrenbestez, ez dituzte beren interesak Sozietatearen interesen aurretik jarriko, edo ez dituzte jarriko inbertitzaile batzuen interesak beste inbertitzaile batzuen interesen aurretik.

- (ii) **Abstentzioa:** Pertsona edo erakunderen batekin gatazka izanez gero, Pertsona atxikiek ez dute parte hartu behar edo eraginik izan behar pertsona edo erakunde horrengan eragina izan dezaketean erabakietan. Bestalde, Pertsona horiek ez dute sarbiderik izan behar gatazka hori baldintzatu dezakeen informazio garrantzitsura.
- (iii) **Komunikazioa:** Pertsona atxikiek araudia betearaztearen arduradunari jakinarazi behar diote, Sozietatetik kanpoko jarduerengatik, familia-harremanengatik, ondarengatik edo beste edozer arrazoigatik, interes-gatazkak izan ditzaketela honako hauekin:
- Sozietatearekin edo Euskaltel Taldeko konpainiaren batekin.
 - Sozietatearen edo Euskaltel Taldeko sozietateen hornitzaile edo bezero garrantzitsuekin.
 - Antzeko negozio batean dabilzan erakundeekin, edo Sozietatearekin edo Sozietatearen mendeko beste sozietate batekin lehian dabilzan erakundeekin.

Interes-gatazkei buruzko edozer zalantza araudia betearaztearen arduradunari jakinarazi behar zaio, eta azken erabakia hark hartuko du.

10. JAKINARAZPENEN ARTXIBOA

Araudia betearaztearen arduradunak behar bezala artxibatuta gordeko ditu Araudi honetan jasotako obligazioekin lotutako jakinarazpenak, notifikazioak eta bestelako jarduerak.

Artxibo horretako datuak erabat isilpekoak izango dira. Araudia betearaztearen arduradunak, idazkariaren edo idazkariordearen bidez, Administrazio Kontseiluari artxibo horien edukien berri emango dio, aldizka eta organo horrek hala eskatzen duen bakoitzean.

11. JOKAERARI BURUZKO ARAUDIA BETETZEN DEN IKUSKATZEA ARAUDIA BETEARAZTEAREN ARDURADUNA:

Araudia betearaztearen arduradunari dagokio Araudi honetako obligazioak behar bezala betetzen diren ikuskatzea. Horretarako, eskumen hauek izango ditu:

- (i) Balore-merkatuetako jokaera-arauak, eta Araudi honetako uneko eta etorkizuneko prozedurak eta bestelako araudi osagarria betetzea eta betearaztea.
- (ii) Pertsona atxikiek Araudiari buruz eta balore-merkatuen gainerako jokabide-arauei buruz duten ezagutza sustatzea.
- (iii) Beharrezkoa bada, Araudia ezartzeko egokitzen jotzen diren prozedurak eta arauak garatzea.

- (iv) Araudian jasota dauden arauak interpretatzea, eta pertsona atxikien zalantzak eta galderak argitzea.
- (v) Pertsona atxikiei diziplinazko espedienteak irekitzea Araudi hau betetzen ez dutenean.
- (vi) Araudi honetan egokitzen jotzen dituen aldaketak eta hobekuntzak proposatzea Sozietatearen Administrazio Kontseiluari.

Araudia betearaztearen arduradunak beharrezko eskumen guztiak izango ditu bere funtzioak betetzeko, eta bereziki gaitua egongo da honako hauetarako:

- (i) Pertsona atxikiei eta inizatuei beharrezkotzat jotzen duen edozer informazio edo datu eskatzeko.
- (ii) Beharrezkotzat jotzen dituen informazio-eskakizunak, kontrolerako arauak eta bestelako neurriak ezartzeko.

Araudia betearaztearen arduradunak urtero, eta beharrezkotzat jotzen duenean, edo hala eskatzen diotenean, Administrazio Kontseiluari araudian aurreikusitakoa beteko dela ziurtatzeko hartu dituen neurriak jakinaraziko dizkio, eta, bestalde, araudiaren betetze-mailaren, egondako intzidentzien eta irekitako espedienteen berri emango dio.

12. EGUNERAKETA

BMLren 80.2 artikulua aurreikusitakoari jarraikiz, Administrazio Kontseiluak eguneratu egingo du Araudi hau, Auditoria eta Kontrol Batzordearen aurretiko txostena jaso ondoren, Araudiaren edukia indarrean dauden xedapenetara egokitu dadin.

13. ARAUDIA EZ BETETZEA

Araudi honetan ezarritakoa ez betetzeak indarrean dagoen legediak aurreikusitako ondorioak izango ditu.

14. INDARREAN SARTZEA

Jokabide-araudi honek indarraldi mugagabea du, eta indarrean sartuko da Sozietateko akzioak Espainiako balore-burtsetan negoziazio ofizialerako onartzen direnean, Burtsen Interkonexio Sistemaren bidez (etengabeko merkatua). Sozietateko araudia betearaztearen arduradunak horren berri emango die pertsona atxikiei, eta ziurtatu behar du Araudi hau aplikatzeko betebeharra duten Euskaltel Taldeko pertsona guztiek araudia ezagutzen, ulertzen eta onartzen dutela. Bestalde, araudia betearaztearen arduradunak Araudi honen berri emango die Sozietatearen mende dauden sozietateei, sozietate horietako administrazio-kontseiluek onar dezaten, eta konpainia horietako pertsona atxikiei helarazi zaien.

ERANSKINAK

**EUSKALTEL SA-REN BALORE MERKATUETAKO JOKABIDEARI
BURUZKO BARNE-ARAUDIAREKIN BATERA EMAN BEHARREKO
DOKUMENTUAK**

1. ERANSKINA

**EUSKALTEL SA-REN BALORE MERKATUETAKO JOKABIDEARI
BURUZKO BARNE-ARAUDIA EGUNERATZEKO KONPROMISOA**

BALORE MERKATUEN BATZORDE NAZIONALA
Finantza eta Korporazio Txostenen Saila. Edison kalea, 4
28006 Madril

Derio, 2015eko [•]ren [•]a

Jaun-andre agurgarriak,

Dokumentu honi atxikita doa Balore Merkatuetako Jokabideari buruzko Euskaltel SAren (“**Sozietatea**”) Barne Araudia, 2015eko [•]ren [•](e)an Sozietatearen Administrazio Kontseiluak onartua. Eskutitz honen bidez, eta uztailaren 28ko Balore Merkatuei buruzko 24/1988 Legearen 80.2 artikuluari jarraikiz, Sozietatea konprometitzen da, beharrezkoa den kasu guztietan, Balore Merkatuetako Jokabideari buruzko Barne Araudia eguneratzera, haren edukia indarrean dauden xedapenetara egokitu dadin. Bestalde, gutun honen bidez adierazten du Balore Merkatuetako Jokabideari buruzko Barne Araudi honen edukia ezagutzen dutela Sozietateko kide diren pertsona guztiek eta Araudi honen eraginpean dauden pertsona guztiek.

Besterik gabe, adeitasunez,

Euskaltel SA

[•] jn./and.

2. ERANSKINA

**EUSKALTEL SA-REN BALORE MERKATUETAKO JOKABIDEARI
BURUZKO BARNE-ARAUDIARI ATXEKITZEKO KONPROMISOA**

EUSKALTEL SA
Teknologia Elkartegia, 809 Eraikina
Derio (Bizkaia)

Administrazio Kontseiluko idazkariarentzat

Jaun agurgarria:

Behean sinatzen duenak (IFZ:),
adierazten du jaso duela Balore Merkatuetako Jokabideari buruzko EUSKALTEL SA-
REN Barne Araudiaren ale bat (“**Araudia**”), eta berariaz adierazten du bertan jasotako
arauekin ados dagoela. Bestalde, adierazten du eraginpeko balore eta finantza-tresna
(horrela definitzen da termino hori Araudian) hauen jabea dela:

Balore-mota	Jaulkitza	Balore zuzenak	Zeharkako baloreak

(*) Honen bidez:

Balorearen jabe zuzenaren izena	Balorearen jabe zuzenaren IFZ	Jaulkitzailea	Zenbakia

Bestalde, adierazten du honako hauen berri eman zaiola:

- (i) Eskura dezakeen informazio pribatua modu ezegokian erabiltzeak lege-hauste hauek eragin ditzake: uztailaren 28ko Balore Merkatuei buruzko 24/1998 Legeak (BML) aurreikusitako arau-hauste larri bat; aipatutako lege horren 100.(x) artikulua aurreikusitako lege-hauste larri bat, edo Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 285. artikulua (“Kode Penala”) aurreikusten duen delitu bat, burtsen merkatuan informazio pribilegiatua modu desegokian erabiltzeari buruzkoa.
- (ii) Informazio pribilegiatua modu ezegokian erabiltzea zigortu egin daiteke BMLren 102. eta 103. artikuluek eta Zigor Kodearen 285. artikuluek aurreikusten duten modura, isunekin, ohartarazpenen publikoekin, kargutik kentzearekin eta askatasun-gabetzeko zigorrekin.

Azkenik, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoari jarraikiz, behean sinatzen duenak badaki bere datu pertsonalak, adierazpen honetan jasota gelditu direla, eta Araudia betez egindako jakinarazpenak direla eta, EUSKALTEL SAREN fitxategi automatizatu batean sartuko direla. Fitxategi horren arduraduna EUSKALTEL SA izango da. EUSKALTEL SAK Derion (Bizkaian) du egoitza, Teknologia Elkartegiko 809 Eraikinean.

Bestalde, adierazten du jakinaren gainean dagoela sarbide-, zuzenketa-, ezeztapen- eta aurkaritza-eskubideez baliatu daitekeela, alde horretatik indarrean dagoen legeak ezarritakoan oinarrituta, eta horretarako fitxategiaren arduradunarekin harremanetan jarri behar duela.

Beste pertsona fisiko batzuei buruzko informazioa eman den kasuetan, idatzita uzten du pertsona horiei aurretik esan zaiela EUSKALTEL SAK haien datu pertsonalak erabili egingo dituela, eta dagozkien eskubideak jakinarazi zaizkiela, lehen adierazi den modura.

.....(n), 20.....koren.....a(n)

Sinatua: